



Usurbilgo Udala

**TOKIKO GOBERNU BATZARRAK 2018KO OTSAILAREN 27AN
GOIZEKO 8:30EAN EGINDAKO OHIKO BILKURAKO AKTA**

BERTARATUAK:

Alkatea: Xabier Arregi Iparragirre.

Zinegotziak: Jone Urdanpilleta Urdanpilleta eta Alaitz Aizpurua Labaka.

Idazkaria: Garazi Etxeberria San Miguel.

Ezin-etorria adierazi dute: Irene Gartzia Palaciosok eta Josune Estella Arranzek.

1.- AURREKO AKTAREN ONESPENA: 2018/02/13KO BILKURA.

Batzarkideek, 2018ko otsailaren 13ko bilkurako akta aho batez onartu dute.

2.- ZUBIETAKO 9. POLIGONOKO 148. PARTZELAN NEKAZAL BILTEGIA ERAIKITZEKO UDAL BAIMENA UKATUZ TGBK HARTUTAKO ERABAKIAREN AURKA HORTICULTURA AGRILAN SL ENPRESAREN ORDEZKARITZAN DIHARDUEN JESUS URROZ UGALDEA JAUNAK TARTEKATUTAKO BERRAZTERTZE ERREKURTSOA EZ ONARTZEA.

Esp. Zenbakia: HZ.04/2017-0068

Tokiko Gobernu Batzarrak 2017ko martxoaren 14ean, besteak beste, zera erabaki zuen:

LEHENDABIZI: HORTICULTURA AGRILAN S.L. (IFK: B75153684) enpresaren ordezkarietan diharduen JESUS URROZ UGALDEA jaunari, Zubietako 9. poligonoko 148. partzelan nekazal biltegia eraikitzeke udal baimena UKATZEA, Nekazaritza eta Ingurumen Teknikariak bere txostenean emandako arrazoiengatik.

BIGARRENA: Erabaki honen berri interesatuari ematea.

BERRAZTERTZE ERREKURTSOA

2017ko apirilaren 12an, HORTICULTURA AGRILAN S.L. (IFK: B75153684) enpresaren ordezkarietan diharduen JESUS URROZ UGALDEA jaunak, Tokiko Gobernu Batzarrak hartutako erabakiaren aurrean berraztertze errekurtsoa tartekatu zuen.

Aurkeztutako berraztertze errekurtsoa aztertu ostean, Nekazaritza eta Ingurumen Teknikariak, Ibon Goikoetxea Retegi jaunak, 2018ko otsailaren 12an ondoko txostena eman du hitzez hitz:



Usurbilgo Udala

BULEGO TEKNIKOA
Udal Teknikariak Alkate jaunari
OBRA HAUNDIAK
ZUBIETAKO 9. POLIGONOKO 148 PARTZELAN NEKAZAL
BILTEGIA ERAIKITZEKO BAIMEN
ERREKURTSOARI TXOSTENA

KOKAPENA: Zubieta, 9. poligonoko 148 partzela.
ESKAERA DATA: 2017ko apirilak 12
ESKATZAILEA: JESUS URROZ UGALDE.
ESPEDIENTE ZENBAKIA: HZ.05/2017-068
AURREKONTUA: 86.000 €
HONDAKINEN KUDEAKETARAKO AZTERLANA: Ez da aurkezten

AURREKARIAK

- Partzela horretan Usurbilgo Udalak 2005eko urriak 24an negutegiak eraikitzeke aldeko baimena eman zuen.
- Jarduerak Donostiako lurretan hainbat instalazio ere izan badauzka.
- 2017ko otsailak 10ean interesatuak, biltegia eraikitzeke aurreproiektua aurkezten du.
- 2017ko martxoak 14ean tokiko gorbenu batzarrak baimena ukatzen du.
- 2017ko apirilak 12an interesatuak berraztertze errekurtsua tartekatu du.

AZTERKETA eta TXOSTENA

Errekurtsua aztertu ostean, jardueraren zenbait ezaugarri azaltzen dira.

- 1,86 NLU ditu, 4,07 Ha-ko azalera du ustiategiak eta baja egoeran dauden 12 langile daude.

Errekurtsuan sarritan aipatzen da lan baldintzetako araudia betetze arren egiten direla aurreikuspenak. Baina lan baldintzak betetzeaz gain, hirigintza eta lurralde antolamendu irizpideak ere kontutan hartu eta bete behar dira.

Lan baldintzak zehazten dituen araudia, errekursoaren arabera, 486/1997 Errege dekretuak zehazten du besteak beste. Kontutan hartu behar da, kasu honetan, ez dela lehendik dagoen ustiategiko eraikin bati buruz ari, baizik eta nekazal produkziara bideratuta dagoen sail bati buruz, eta printzipioz araudi hori ez dela aplikagarria.

Beraz, kontutan izanda.

- Udal araudiaren baitan, Udalak erabaki dezakela eraikinaren kokapena non izan behar duen, sor ditzakeen eraginengatik. Eta jakinda, balio estrategiko altuko lurak direla, eta beraz lur mota horiek nekazaritzara bideratzea dela lehentasun eta ez nekazal jarduerarako azpiegitura lagungarrientzako.
- Ez dela errekurtsuan aurkezten, lehendik jarduerak izan badituen



Usurbilgo Udala

azpiegitura edo eraikinak, eta beraz ezinezkoa dela beharrezkotasuna baloratzea. Eta gainera, aurkezturiko informazioaren arabera, balio estrategiko altua ez duten lurak badituela explotazioak, hasiera batean, mota honetako azpiegiturako kokatzeko egokiagoak izan daitezkeenak.

- Eraikinak ez duela udal araudia betetzen (gehieneko altuera librea 3,5 m-takoa da et ez aleroan).
- Lur sail honetan lehendik lan baldintzak ez betetzeagatik salaketak egon direla Usurbilgo Udalean.

Hurrengoa proposatzen da.

- Proposatzen den nekazal biltegia eraikitzeako errekurtsuari KONTRAKO txostena igortzea.
- Ikusirik nekazal jarduerak dituen ezaugarriak, egun langileek, gutxieneko lan baldintzak betetzen dituztela ziurtatzea.

Usurbilen, 2018ko otsailaren 12an.
UDAL NEKAZARITZA eta INGURUMEN teknikaria.
Izta.: Ibon Goikoetxea Retegi.

Gauzak horrela, nekazaritza eta ingurumen teknikariaren txostena irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENDABIZI: Zubietako 9. poligonoko 148. partzelan nekazal biltegia eraikitzeako udal baimena ukatuz Tokiko Gobernu Batzarrak hartutako erabakiaren aurka HORTICULTURA AGRILAN S.L. (IFK: B75153684) enpresaren ordezkariak diharduen JESUS URROZ UGALDEA jaunak aurkeztutako berraztertze errekurtsioa baztertzea, Nekazaritza eta Ingurumen Teknikariak bere txostenean emandako arrazoiengatik.

BIGARRENA: Erabaki honen berri interesatuari ematea.

Eta eztabaidarako gaiak amaiturik, alkateak batzaraldia bukatutzat eman du, goizeko 8:45ean bilera agiri hau jaso da, batzordekideek izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.